

# DYA Gipuzkoa: anbulantziatik arlo sozialera aldatu da premia 50 urtean

Herritarrei laguntzeko sortu zen DYA Gipuzkoa gaurko egunez, duela mende erdi. Errepidera atera ziren, hor zegoelako beharra. Ez zen posible izanen aitzinera segitzea jendearen babesik gabe. Ez dira nekatuko eskerrak emateaz. Eta horixe izango da Donostiako Alderdi Ederren eginen duten ospakizun ekitaldiaren xede nagusia.

## ERREPORTAJEA

Maidor IANTZI GOIENETXE

**Z**er nolako garaiak bizi ditugu, non sumatzen dugu beharra... galdera horiei erantzutea da gure lana. Arlo sozialera aldatzeko eta baliabide gehienak horra bideratzeko arrazoia hori izan da. «Lehen anbulantzietan geunden erabat. Orain administrazioak nahiko ondo betetzen du eremu hori. Baina jendartean lan asko dago oraindik egiteko», dio Irene Tapiak Irazoki DYA Gipuzkoako presidentea.

Erronka handi bat dute: pertsona helduen eta mugikortasun arazoak dituztenen beharrei erantzutea. Horretarako, bertze boluntariora mota bat lortu behar dute. Orain artekoa anbulantziaren ingurukoa izan baita, osasun arloa gustuko dutenena; orain, jendartearekin sentsibilizatutako lagunengana heldu nahi dute. Hagitz esparru ezberdinak dira. «Garaiak aldatu dira, eta ea gai garen egokitzeko eta aurrera egiteko», adierazi du Tapiak.

50 urte betetzen dituzte gaur, eta herritarrei eskerrak eman nahi dizkiete, aurrera jarraitzeko eta bertze hainbete urte betetzeko ilusioz beteta daudela erranez, egiteko gauza aunitz dituztelako. Boluntariora parte hartzerantz animatzeko ere baliatuko dute aukera. «Bakoitzak nahi eta ahal duena eman dezake, ez dago minmorik» argitu du. Ospakizun egun honetan jendeak ikusi eta aditzea espero dute.

25.000 pertsonak baino gehiagok laguntzen dute DYA Gipuzkoa diruz. Elkarrekin osatzen duten kide gehienak boluntarioak dira: 280 inguru dira, Gipuzkoa osoan banatuta. Horiek beren ikasketa eta lanetan daudenez, aste tartean sortzen diren zerbitzuei jarraipena egiteko 30 bat langile daude.

«DYA Gipuzkoak 50 urte bete baditu, herritarrei esker da», azpimarratu du lehendakariak. Bete beharra dagoen le-

kuan egoten saiatzen dira. «Hasieran errepidean zegoen. Berehala lehen sorospinak erakusten hasi ginen. Zenbat ikastaro eman ote ditugun, eta horretan jarraitzen dugun». Gizarte zerbitzuetan ere sartu ziren: «Duela hogeita bat urte ikusi genuen jende asko zegoela etxetik atera ezinda, oztopo arkitektonikoengatik. Pentsaezina iruditu zitzaigun: bertan gelditzera kondenatuta al daude? Baliabide batzuk erosi genituen, igo eta jaisteko eskailerak. Gaur egun hori da gure proiektu nagusia, behar handia dago eta. Ez bakarrik lekualdatze ko, igo eta jaisteko; premia handia dago akonpainamenduak egiteko. Nahiz eta ibiltzeko ongi egon, pertsona batzuk ez direlako ausartzen kalera bakarrik ateratzen. Laguntza behar dute paseatu, kafe bat hartu edo zinemara joateko».

Erreskatean ere aritzen dira, mendian galdu direnei laguntzen eta uholde edo elurteetan harrapatuta gelditu direnak ateratzen. Lur orotarikoak hartu zituzten horretarako: «Gogoratzen naiz asko ibiltzen ginela elurra egiten zuenean dialisia zuten pertsonak eramaten».

«**IKUS GAITZATELA**» Aste osoa daramate sare sozialetan jendearen zorion agurrak plazaratzen. Elkarrekin gaurko egunez erregistratu zenez, ekitaldi bat prestatu dute Donostiako Alderdi Ederren, 10.00etatik 14.00etara. Informazio postu bat jarriko dute alde batetik, eta postu solidario bat bertzetik, ekarpen bat egiteko oroigarri baten truke. Jendearengana hurbiltzen saiatuko dira. «Marraski lehiaketa bat proposatu genuen eskoletan, eta izugarria izan da

Premia handia dago akonpainamenduak egiteko. Nahiz eta ibiltzeko ongi egon, pertsona batzuk ez direlako ausartzen kalera bakarrik ateratzen.  
DYA GIPUZKOA

parte-hartzea: milaka marraski jaso ditugu». Gaur bertan eginen dute sari banaketa, Alderdi Ederren. «Haurrek anbulantzia ikusi dute batez ere, herritar gehienek bezala. Baina besterik ere bai: gurpil-aulkia eramaten, mendian, uretan, bihotz-birika suspertzeak egiten... Gauza politak».

11.00etatik aurrera, karabana bat eginen dute elkarrekin hainbat ibilgailurekin, eta herrialde osoa zeharkatuko dute, herritarrek ikus dezaten gaur DYA Gipuzkoaren eguna dela.



GOZATU GUREKIN  
TUTERAKO  
JAIAK



Jai zoriontsuak • Felices fiestas



ETOR  
ZAITEZ!

SERRALTA, 2. TUTERA